



Ospitalea, adinduak eta ariketa fisikoa

Luze ospitaleratutako adinduek ariketa fisikoa egitea ona dela ondorioztatu dute ikertzaileek / 2-3

Europako kultur ibilbidea sortuko dute San Migueli eskainitako tenpluekin / 5

Fran Idareta Goldarazena bere lehen abizenari buruzko ikerketa liburuan jaso du / 6

Bi urteren ondoren, Bakaikuko Etxea Barnetegiak bere hiru hamarkadak ospatuko ditu / 7

June Kintanak Espainiako Disko Jaurtiketa Txapelketa absolutua irabazi du, hirugarren aldiz / 13

Maddalen Oiarbide eta Irati Ayerdi altsasuarrak kontserbatorioko ikasleak dira / 15



Programa garatu duten medikuak eta ikerlariak. UTZITAKOIA

"Geriatría zerbitzuan fisioak lan egitea lortu dugu"

MIKEL LOPEZ SAEZ DE ASTEASU NUPEKO IRAKASLE, NAVARRABIOMEDEKO IKERLARIA Altsasuarrak, hainbat ikertzaileekin batera, ospitalean egonaldi luzeak egiten dituzten adinekoengan ariketa fisikoa egiteak dituen onurak baieztatu ditu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko eta Navarrabiomedeko zenbait ikertzailek ondorioztatu dutenez, "3 egunez ariketa fisikoko programa bat egiteak arin-

du egiten du ospitalean egotearekin lotutako desgaitasuna 75 urtetik gorako pertsonengan". Nicolas Martinez-Velilla eta Mikel Izquierdo Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Uniber-

tsitate Publikoaren ikerketa biomedikoko Navarrabiomed zentroko ikertzaileek koordinatu duten ikerketan parte hartu du Mikel Lopez Saez de Asteasuk. Ikerketaren emaitza Estatu Ba-

tuetako Medikuen Elkartearen *Journal of the American Medical Association* aldizkarian argitaratu zen ilbeltzean.

Adinekoak eta ospitaleko egonaldiak, zergatik erreparatu zenion horri?

Aspaldi hasi ginen hori ikertzen. Ikusi genuen ospitalizazio prozesuek izugarritzko kaltea sortzen zutela adineko pertsonengan. Nire tesiarekin duela sei urte hasi nintzen. Gure ideia izan zen ariketa fisikoko programa bat egitea ospitaleko pediatria zerbitzuan, beste lagun batzuekin batera. Ikusi genuen ariketa fisikoko programa horrekin ospitalizazioan gertatzen diren eta funtzionaltasunari dagozkion kalteak pixka bat konpontzen zirela eta adineko pertsonen funtzioa hobetu egiten zela, ez soilik fisikoki, baita mentalki ere, arlo kognitiboan. Agerian gelditu baitzen ospitalizazio prozesuak izugarritzko kaltea sortzen duela funtzioan, eta, konponbide gisa, ariketa fisikoa proposatu genuen. **Fisioterapia ikasketak bukatu berri, tesia egin zenezakeen kirolaren, lanaren edo lan munduaren inguruan. Baina adinekoak eta ospitalea gaia aukeratu zenuen tesirako. Zerk eraman zintuen horretara?**

Ikasketak bukatu nituenean kirol arloan sartu nintzen. Baina berehala konturatu nintzen niri gehien gustatzen zaidana adineko pertsonekin lan egitea dela. 2016an Mikel Izquierdo nire nagusiarekin lan egiteko aukera sortu zitzaidan, eta ez nuen dardarik izan. Harekin eta Nicolas Martinez-Velillarekin batera proiektu hau aurrera eramatea erabaki genuen. Urte hartan ariketa fisiko programa hori ospitalean garatzen hasi ginen. Bizpahiru urteko lana izan zen, eta izan genituen emaitzek oihartzun oso handia izan zuten nazioartean, herrialde askotan.

Adinaren arabera ospitaleratze luzeak ondorio desberdinak ditu?

Ospitalizazioa guztiondako nahiko konplexua da. Baina adinekoak nahikoa zaugarriak direnez, ospitaleko egonaldiaren kalteak nabarmenagoak dira beste populazio batzuekin alderatuta.

Ospitalizazioak batzuetan adinekoen bizimodua erabat aldatzen du. Hori nolabait konpontzen edo aldatzen saiatu ginen, eta lortu genuen.

Ospitaleratze luze batek adineko pertsonenei zein arrisku fisiko ekar diezaieke?

Kristorenak! Egonaldi luze baten ondoren, bere ibilbidea erabat aldatu dezake. Ospitalean, normalean, gure gaixotasuna sendatzen dute. Baina, batzuetan, alde batera uzten da arlo fisiko edo kognitibo hori. Ospitalizazioaren ondoren adineko pertsonak etxera bultzatzean, batzuetan, ezin dute bere bizimodua aurrera eraman.

Muskuluen bizitza edo indarra galtzen da? Edo zer gertatzen da?

Muskuluek bere ezaugarriak galtzen dituzte, muskulu masa galtzen dugu, muskulu funtzioa... Horrek bizi kalitatean izaten duen eragina izugarria da. Hori dela eta, horretan saiatu ginen: muskuluaren funtzio hori indar entrenamenduaren bidez hobetzen eta, horrela, adineko pertsonen bizi kalitatea mantentzen edota batzuetan hobetzen.

Ospitalean gaixo dauden adinekoei indar ariketak eginarazi dizkiezue?

Bai. Batzuetan badirudi amets bat dela, baina beraiekin horretan entrenatu dugu, makinekin, gimnasio batean bezala. Geriatriako zerbitzuan gimnasio moduko bat antolatuta genuen bulego batean. Han gurekin, fisioterapeutekin, entrenatzen bost egun jarraian egon ziren. Jai egunetan eta asteburuetan ere lan egin genuen. Emaitzak oso politak izan ziren, eta izugarritzko oihartzuna izan zuen. Ez bakarrik hemen, osasun zientzien departamentuan, eta beste arlo batzuetan ere. Beste herrialde batzuetan ere oihartzuna izan du.

"ADINEKOEN BIZI KALITATEA INDAR ENTRENAMENDUEN BIDEZ MANTENDU EDO HOBETZEN DA"



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Mikel Lopez Saez de Asteasu. UTZITAKOA

Adinekoa eta ospitaleratuta. Hainbat egun ohean luze egon behar dut, baina zuk hartuko nauzu eta ariketa fisikoa egitera eramango nauzu?

Bai, paradigma aldatu da. Ikusita zer-nolako kalteak sortzen zituen ospitaleak, alternatiba bat ariketa fisikoa da. Beraz, adineko pertsonak arlo klinikoari dago-kionez ospitalean egonkor dauenean, oso interesgarria da horrelako programak aurrera eramatea ospitalizazioarekin erlazioan dauten kalte horiek alde batera uzteko.

Ariketa zein pertsonak egin zezakeen nola zenekiten?

Medikuekin lan egiten genuen egunero, eta beraiek ikusten zituzten adineko pertsona horiek. Beraiek aukeratzen zituzten ariketa fisikoko programan sartzeko aukera zutenak. Eta medikuen papera izugarria izan zen, oso garrantzitsua. Beraiei esker ere lortu ditugu emaitza horiek.

Medikuak gaixoeekin gutxi egoten dira. Gehiago erizainak edota senideak egoten dira.

Diziplina arteko talde baten barruan lan egin dugu erizainekin eta medikuekin. Haien papera izugarri izanda, laguntzeko eta transferentziak egiteko orduan, farmakoak noiz eman, noiz kendu. Harreman estua izan dugu. Haiei esker lortu ditugu emaitza garrantzitsu hauek.

Zer ariketa mota egiten zenituzten, edo egiten dituzue?

Osagarri ugariko entrenamendu bat egiten genuen. Hainbat modalitate landu genituen: indar

entrenamendua, oreka ariketak, malgutasun ariketak eta entrenamendu aerobikoak. Lan programa osatzeko modalitate guztiak sartu genituen.

Zenbat denboraz egoten zineten haiekin?

Goizean pertsona bakoitzarekin bakarkako entrenamendu bat egiten genuen eta beraiekin 30 minutuz-edo egoten ginen. Arratsaldeetan senideekin gelan lana egin beharra zuten, korridorean zehar hainbat distantzia ibili behar zuten. Ospitalean zeudela egunero bi saio egiten zituzten.

Zer adinetako jendeaz ari gara?

Adinaren batz bestekoa 87 urtekoa da. Hala ere, 75 urtetik 103 urtera artekoak izan ditugu.

Eta jendea gogotsu?

Gogotsu eta indar handiarekin, eta asko hobetzen. Horrek esan nahi du ariketa fisikoa ezagugarriak ikaragarriak direla, polipilula bat bezala funtzionatzen duela, eta halako onurarik duen farmakorik ez dagoela.

Ariketa fisikoa egiteak buruari ere eragiten dio?

Buruarena kristorena izan zen. Guk funtzionaltasun fisikoari dagozkion emaitza onak lortuko genituela pentsatzen genuen bakkarik hasieran. Baina gero konaturatu ginen arlo kognitiboan aldaketa izugarriak gertatzen zirela. Eta guk ez genuen inolako entrenamendu kognitiborik egiten. Emaitza horiek oso-oso interesgarriak izan ziren guretako, eta emaitza horien atzean zer dagoen ikertu nahian gaude.

Eta familiek zer esaten zizueten?

Senideendako, hasiera batean, shock moduko bat izaten zen. Ariketak egiteko makinak ikusten zituzten, eta, hasiera batean, beldurri zeuden. Temati, atzetik, ikusten ea zer egiten genuen. Baina lehen saioaren ondoren ikusten zuten haien aurpegia aldatzen zela, pixka bat animotsu joaten zirela eta errutina aldatzen zela. Hurrengo egunean irribarre batekin etortzen ziren. Ariketa fisikoarekin harremana estutzen hasten ziren. Batzuek, etxera bultzatzean, galdetu ziguten: orain zer egingo dugu etxean? Hainbat ariketa proposatu genizkien. Edo programa horrekin jarraitzeko eta onura horiei segida emateko herrietan zerbitzuak bilatzen lagundu genien.

Beraz, ospitaleko egonaldia bukatuta, segida izan du?

Hori da. Ospitalizazioaren ondoren, hiru hilabetetara, kontsultara bueltatzen ziren eta beraiekin ba hainbat test egiten genituen, ikusteko emaitzak mantentzen ote ziren, ariketa fisikoko programekin jarraitzen zuten jakiteko... Ikerketari jarraipena eman genion.

Eta osasun etxeko medikua guztia- ren jakitun da?

"ARIKETA FISIKOAREN EZAUGARRIAK IKARAGARRIAK DIRA, FARMAKOEK EZ DUTE HALAKO ONURARIK"

Geriatría zerbitzuak egiten du preskripzioa, eta nik uste dut batzuetan klinika historian agertzen dela programa horretan dihardutela. Medikuek zerbitzuko ei zer nolako programa den eta zer ezaugarri dituen galde diezaiekete, jakiteko zertan ari diren. Arlo horretan ez dute inolako arazorik, badaukate informazioa ospitaletik kanpo adinekoen bizimodua nolako den jarraitzeko.

Genero ikuspegia kontuan izan duzue?

Programan emakumezkoek gizonzkoek baino gehiago parte hartu dute. Diziplina arteko lantaldean ere emakumezkoak eta gizonzkoak gaude. Emakumezkoak gogotsu ibili dira ariketa fisiko programarekin.

Zergatik parte hartu dute emakumezko gehiagok?

Emakumezkoak gehiago bizi dira, emakumezkoen bizi itxaropena gizonzkoena baino pixka bat handiagoa da. Geriatría zerbitzuetan emakumezko gehiago daude gizonzkoak baino. Beharbada hori izan daiteke erantzuna. **Programa bukatuta, ospitalean, geriatrian edo zerbitzu guztietan ezarri da?**

Hori nire tesia izan zen. Tesi horren helburua izan zen translazioa kliniko izatea: lortu nahi genuen errutina klinikoan adineko pertsonekin fisioterapeuta bat halako programa bat garatzen egotea. Eta lortu dugu, geriatría zerbitzuan fisioterapeuta bat kontratatuta dago, goizero adinekoekin lan egiten du. Helburu hori bete dugu eta oso pozik gaude.

Fisioterapeutarekin etengabeko harremana duzue?

Elkarrekin lan egiten dugulako, berarekin harremanetan gaude. Gainera, gurekin egon zen ikerketaren azken txanpan, programaren ezaugarriak pixka bat ezagutzen. Berarendako mundu berri bat zen hura. Nolabait, gurekin ikasten egon zen azken txanpa horretan, ikerketari jarraipena emateko eta errutina klinikoaren barruan sartzeko.

Beraz, ospitalera, geriatrara joanez gero, ariketak egiten jarriko gaituzte.

Guztiok txipa aldatu behar dugu. Ospitalizazio prozesuan, normalean, atsedean hartzen egon behar gara. Batzuetan nahitaezkoa da, baina beste batzuetan ez. Eta mugitu egin behar gara. Mugitzeko ezaugarriak ditugu eta gorputzari estimulu hori ere eman behar zaio aurrera jarraitzeko.

Halako programa ospitaleko beste atalaren batean ezarri da?

Beste zerbitzu batzuk gurekin harremanetan jarri ziren eta aurrera eramane behar dute, pixkanaka. Hortxe gaude lehenengo pausoak ematen. Badirudi beste zerbitzu batzuetan ere animatuko direla horrelako programak ezartzera. Ideia bikaina da.

Norbaitekin elkarlanean ari zarete?

Esaterako, Mexikotik gure programa ezagutzera etorri ziren. Beste herrialde batzuetan beste ospitale batzuk horrelako programak aurrera eramaten ari dira. Albaceten, Madril... Horretan nahikoa aitzindariak izan gara, eta, orain, dagokiguna da besteei horrelako programak garatzen laguntzea.

Zer dira geriatría zerbitzuko paretetako marrazki horiek?

Nafarroako hainbat lekuren argazkiak dira. Geriatría zerbitzua argazki horiekin antolatuta dugu. Pasaporte batzuk diseinatu ditugu han dauden pertsonekin ibilbide bat egiteko eta gelan ematen duten denbora hori murrizteko. Beste ikerketa bat izan da, ospitalizazio prozesu aktibo bat bilatzen zuena. Lortu ditugun emaitzak ere izugarriak izan dira.

Gelatik ateratzeko estimulu bat, goazen Nafarroa bisitatzeraz?

Hori da. Hortxe dituzu Aralarko santutegia, Lesaka, sanferminak... Azkenean, estimulu bat da ospitale barruan mugitzeko familia-kideekin. Helburu bera dugu horrekin ere: ospitalizazio luzeen kalte fisiko eta kognitibo horiek alde batera uztea eta ospitalizazio prozesu aktiboago bat bilatzea.

Zer da www.vivifrail.com?

Gure webgunea da. Hortxe gaude landu ditugun material guztiak. Gainera, deskargatu daiteke eta hortxe agertzen da zer den gure ikerketa. Adinekoekin batera egiteko hainbat ariketa fisikoko programa gaude. Telefono mugikorrerako aplikazioa erabil daiteke. Han bideoa, ariketak eta programak egiteko aukera. Geroz, ez dago inolako aitzakiarik ariketa fisikorik ez egiteko.

Zein da hurrengo erronka?

Oraintxe Cita Alzheimer fundazioaren *Cita Go On* proiektuan gaude, Donostian garatzen ari direna eta ikertzaile nagusia Mikel Tainta da. Ere mu anizetako esku hartzea Euskal Herrian egiten dena. Gu ariketa fisikoko programa zehazten saiatuko gara. Ikerketa handia da eta oso motibatuta gaude.



ASTEKOA

RAF ATXURI

UEU. Uda, unibertsitatea eta beste

Edota Udako Euskal Unibertsitatea. Covid-aldia gorabehera, aurtengoan aurrez aurreko uda-jardunari ekin dio berriz ere hain esanguratsua den erakunde honek. Izan ere, 1973ko uztailean urrun hartan Donibane Lohizunen Euskarazko saio akademikoei ekin zien euskaltzale talde sutsu batek, tartean Karlos Santamaria, Manex Goienetxe edo Txillardegia zebiltzala.

Geroztik, bide emankor eta oparoa osatzen ari da UEU.

Unibertsitate sistema publiko nahiz pribatuan Euskararen

arrastorik ere ez zegoenean (irakaskuntza ertainetan ere deus gutti) udan saio akademiko batzuk antolatu ziren eta abiaburu xume eta koxkor hartatik Euskararen presentzia unibertsitate(et)an handituz joan da urtez-urte.

UEU: IDEIEN MINTEGI ETA TOPALEKU, EUSKALGINTZAREN ELIKAGAI ETA AKUILU, AURTEN 50 URTE

Euskalgintzako beste hainbat jardunetan bezala, hastapen herrikoi, grinatsu eta militantearekin abiatu zen auzolan erraldoi hau: Donibane Lohizune, Uztaritze, Iruñea (Larraona ikastetxeko aro mitikoa), Biarritz, Eibar, Baiona, Gasteiz... UEUk ekarpen eskerga egin dio euskal komunitateari: ikastaroak, aldizkari zientifikoa, liburuak, datu-baseak, gradu-ondokoak, Ikergetza kongresuak, txio-tesiak...

UEU: ideien mintegi eta topaleku, euskalgintzaren elikagai eta akuilu, aurtun 50 urte, eta horren karietara ospakizun sorta berezi batez bere burua erakutsi du euskaldungoaren aurrean. Xedeak garbi eta kemen berritua. Bejondeiola eta beste hainbat urte emankor!

HARA ZER DIEN

Zertara dator geldialdi hau?

SAKANAKO SARE HERRITARRA

Lau urte bete dira Sanchez presidenteak publikoki esan zuenetik Espainiako Gobernuak hiru hamarkada luzez aplikatutako salbuespeneko espetze-politika kentzeko eta espetze-politika arrunta ezartzeko prozesu bati ekingo ziola. Adierazpen horrek itxaropena sortu zuen euskal presoan eta haien senideen artean, baita euskal gizarteko pertsona askorengan ere.

48 hilabete pasatu dira ordutik, eta egoera aldatu da. Urruntze-politika amaitzeko lehen pausoak egin dira azken urte hauetan, baita graduen progresioa ere. Baina, lau urteren ostean, oraindik ere euskal presoan %36 urruntze-politika horren menpe dago. Eta lehen gradua amaitu den arren, bigarren gradutik hirugarrenera pasatzea edota baimenak eskuratzea 21 presori soilik onartu zaie.

Kontuan izan gabe Audientzia Nazionalak baimen eta progresioen aurrean hartutako jarrera ukatzailea.

Bi hilabete igaro dira azken Euskal Herriratzea izan zenetik. Zertara dator moteltasun hau? Are gehiago, zertara dator geldialdi hau? Lege arrunta aplikatzeak berehalakoa izan beharko luke, ez dago ez argudio ez aitzakiarik salbuespeneko espetze-politika iraurarazteko.

Eta hori gertatzen den bitartean, euskal preso horien senideek ehunka kilometro egiten jarraitu behar dute 40 minutuko bisitak izateko. Eta, beraz, euskal presoan eta haien senideen eskubideak urratzen jarraitzen dute.

Egoera hau salatzeko elkartu gara gaur hemen. Baina bereziki, hasitako bideari bultzada ematen jarraitzeko. Argi baitugu jendarte zibilaren aktibazioari esker

iritsi garelako honaino eta urratsak egiten jarraituz, kilometroak batuz, egingo dugula aurrera.

Salbuespeneko espetze-politikarekin behin betiko amaitzeko aukera dugu eskuartearen, eta lortu arte ez gara pausatuko. Bidea egiten jarraitu behar dugu, elkarrekin, bizikidetzaren alde, bakearen alde eta salbuespeneko espetze-politika ezarrita duten euskal preso guztiek etxerako bidea egitearen alde. Bidea egiteko gertu gaude! Etxerako bidea gertu dugu!

Dei egiten dizuegu indarrak batzera, urratsak denak batera egitera, herri, auzo zein eskualdeetara presoan gaia eramatera, urriaren 8an Donostiako kaleak betetzera. Azken batean, denak etxeratu arte, guztion artean aurrera egitera!

Eutsi goiari eta animo! DENAK ETXERA!

GUTUNA

Altsasuko kultur teknikariaren ordezkoko euskalduna orain!

INGERU MIKEO, ERKUDEN BARANDIARAN, HAIZEA RAMIREZ DE ALDA, JONJO AGIRRE

Altsasuko kultur teknikaria bajan omen dago. Bere ordezkoko, euskaraz ez dakien pertsona bat ekarri dute, lan poltsan ez omen zegoelako euskaldunik. Orduan, larrialdiko deialdi bat egiterik izanzen zen, bat

aurkitu arte. "Susmoa" daukagu, lan poltsan gatzelaniaz ez dakien pertsonarik aurkitu ez balute, bazter guztiak astinduko zituztela teknikari erdaldunen bat lortu arte. Nafarroa hirutan zatikatuta dago giza eskubideei dagokienez (hizkuntza eskubideak ere, giza-eskubideak baitira, Unescok dixit). Teorian, Sakanako

euskaldunok erdaldunen pareko hizkuntza eskubideak dauzkagu, baina maiz ez da hori praktikan islatzen. Aski da Foruzaingotik, Osasun Etxetik eta zer esanik ez, Nafarroako Gobernutik igarotzea, gure eskubideak non geratzen diren ikusteko. Iortiaiko kultur programazioa ere, euskaldunoi bizkar egina dago neurri handi batean, adibidez.

Udalaren ardura da, altsasuar eta sakandar euskaldunoi euskarazko zerbitzua bermatzea alor guztietan. Horretarako beharrezko neurriak hartu behar ditu, sakandar erdaldunei gatzelaniazko zerbitzua bermatzeko egiten duen bezala. Sakandarrez ere ari gara, Iortia Kultur Gunea sakandar guztiei zerbitzu emateko xedez sortu baitzen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehie-
nez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna
laburtzeko. Gutunak ezin izango
dira kapituluka bidali. Gutunak
asteazkena 10:00ak baino lehen
bidali beharko dira erredakziora.
Gutunarekin batera bidali beharre-
koak: egilearen izena eta abizena,
NA zenbakia, herria eta harreman-
etarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru
plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu /
gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

Europako San Miguelen arteko bidea osatu nahian

Aralarko santutegia Europako San Miguelen Toki eta Bideen Elkartean sartuta dago. Uztaila bukaeran Europako tenpluen arteko ibilbidea sortzeko eskaera aurkeztuko dute Europar Batasunean. Bestalde, asteburuan Deierriko Museoa mustuko dute

Alfredo A. eta Maider B. UHARTE ARAKIL. Asteartean Frantziako Saint-Michel d'Aiguilhako 45 kideei eta Gironako Sant Miquel de Fluviàko bost kideei harrera egin zieten Aralarko Deun Mikel Kofradiako kideek, Joxe Mari Ustarroz presidentea buru zela. Aurretik Aralarkoek d'Aiguilhara egindako bisita itzuli zuten frantziarrek. Saint-Michel d'Aiguilhek, Sant Miquel de Fluviàk, Aralarko San Miguelek, Normandiako Mont Sant Michelek (Frantzia), La sacra di Sain Michelek (Italia) eta Monte Gargano San Michele (Italia) Europako San Miguelen Toki eta Bideen Elkarteak edo Sarea osatzen dute, eta egitasmo berezia dute: San Miguelen arteko ibilbidea sortu, eta ibilbide kultural europarra izatea. Egitasmoa uztaila bukaeran aurkeztuko dute Europar Batasunean, eta egunotan dokumentazioa prestatzeko makina bat lan du aurretik Europako San Miguelen Toki eta Bideen Elkarteak. Saint-Michel d'Aiguilhako ordezkaria da elkartearen presidentea, eta Joxe Mari Ustarroz presidenteorde-tako bat.

Ustarrozek azaldu duenez, Aralarko San Miguel santutegiak hamar urte inguru daramatza elkartearen. "Argi genuen ezin ginela soilik hemen geratu, Europara zabaldu beharra genuela. Elkartearen berri izan genuetik hara jo, eta parte hartzen hasi ginen" dio. Europako gainontzeko San Miguel tenpluek elkar-tearekin bat egitea nahiko luke. "Elkarteak zabaldu nahi dugu, San Miguel guztiak bildu" nabarmendu du.

Europako San Miguelen ibilbidea Donibane bide antzeko bat sortu nahi du elkarteak, Europako San Miguelak batuko lituzkeena. "Horretan gaude, baina egitasmoa aurrera ateratzeko Europar Batasunaren laguntza beharko



Saint-Michel d'Aiguilhe eta Sant Miquel de Fluvià tenpluetako kideei egindako harrera.

"EUROPAKO SAN MIGUELEN BIDERAKO EUROPAKIN BAIETZKOA ESPERO DUGU" JOXE MARI USTARROZ

genuke. Dokumentazio guztia prestatzen ari gara egunotan, eta gure ekimenaren berri ematen, jakina, tartean Sakanan. Sakanako Garapen Agentziarekin bildu gara, eta Nafarroako administrazioekin eta Aralarko santutegia maite nahi duten guztiekin biltzeko eta lan egiteko prest gaude" azaldu du.

San Miguelen arteko ibilbidea Europako kultur ibilbide gisa jasotzeko egitasmoa uztaila bukaeran aurkeztuko dute Europar Batasunean. Ustarroz baikorra da. "Uste dut erantzuna urte bukaerarako jasoko dugula, eta baiezkoa izango delakoan nago, proiektua ederra delako. Horrela proiektua aurrera ateratzeko aukera izango genuke, diru laguntzak jasoko genituzkeelako" espero du.

Baiezkoa jasoz gero, Europako San Miguel tenpluen arteko ibil-

bidea jaso, seinaleztatu, gizarteratu eta zabalduko lukete, San Miguel tenpluei balioa ematez aparte, turismoari ekarpena eginez. "Garai batean San Miguelen arteko ibilbidea zegoela jakin dugu, baina ez dakit zergatik galdu zen. Beraz, egitasmoa aurrera ateratzea polita litzateke. Gero, norberak nahi ahala egingo luke bidea: oinez, bizikletan..." irudikatzen du.

Deierriko lanekin gustura

Santutegiko Lakuntzetxe edo Deierri etxea berritzeko lan politoan despiditu dira. Goiko pisuan Aralarko Mikel Deun Kofradiaren egoitza dago. "Igan-dean kofradiaren asanblada orokorra egin genuen bertan, gure egoitzan, eta oso pozik gaude". Kofradiak 1.750 kofrade ditu, "eta osasunarekin dago. Deierriko lan handienak bukatu dira, baina lan txikiagoak ditugu aurretik, komunak eta bestelako ekipamenduak jarri". Halaber, ohiko ekitaldiekin jarraituko du kofradiak. "Uztailaren 14an haurrak San Migeli aurkezteko ekitaldia egingo dugu. Pergaminoa jasotzeko, aurretik eman behar da izena" gogoratu du.



Deierriko berrikuntza lanak, kanpotik.

Deierriko museoren mustutzea

Igan-dean, Lakuntzetxe edo Deierriko Museoa mustuko da, 12:00etan, Etxarri Aranazko abesbatzak parte hartuko duen ekitaldian. Bezperan uharte arakildarrek Deierri bisita gidatua egiteko aukera izango dute. Ondoren museoa itxi egingo da uztailaren bukaera aldera behin betiko zabaldu arte.

Virtualan.es enpresako Iker Ibero Iriartek landu ditu museoko edukia. "Europako mapa erraldoi batean San Migueli eskainitako hainbat tenplu jaso ditugu, eta Aralarkoak Europako testuinguru horretan duen garrantziaz jabetuko gara" dio Iberok. Beste gune batean aintzinatik hona San Miguelen irudiak izan duen eboluzioa dago ikusgai. Agian, ikusgarriena Aralarko santutegiko erretaula gertutik ikusteko jarri duten ukipenezko pantaila erraldoia da. "Erretaula noiz eta nola egin zen jasotzen du, eta duen zoom ikusgarriari esker, xehetasun guztiak gertutik ikus daitezke" dio Iberok. Beste pantaila batean Aralarko santutegiaren historia jasotzen da. "Santutegia nola aldatu den erakusteko, VII. mendeko, X. mendeko eta XII. mendeko santutegiaren bertsioak birtuala egin dugu" gaineratu du. San Migeli buruzko historia bitxiak jasotzen dituen ikusentzunezkoan, esaterako, 1.100 urtean Sancha Xemeneizkoak Jerusalemera egindako bidaia jaso dute. "Zerbait polita eta ikusgarria egitea zen gure ideia, eta lortu dugula uste dut. Igan-dean gonbidatuak zaudete" egin du gonbita.

DUELA 25 URTE...



Autobus zerbitzua zabaldu zen

Azoketara, musika eskoletara, osasun etxetara... Haietara joan beharra zegoen. Eta batzuek ez zuten modurik. Horregatik, Sakanako Mankomunitateak herrien arteko komunikazioa hobetzeko premia zegoela ikusi zuen. La Burundesa autobus enpresarekin adostu zuten hiru joan-etorri eta erdi gehiago eskaintzea astegunetan eta larunbatetan. Sei hilabeteko froga epealdia ezarri zuten, emaitzak izanik haiek aztertu eta balorazioa egiteko.

"Liburuaren sustatzaile nagusia aita izan da"

FRAN IDARETA GOLDARAZENA IDAZLEA

Gaur, 18:00etan, Iruñeko Civiox Kondestablean liburu pertsonal bat aurkeztuko du irurtzundarrak. Partitura bat ere badu argitalpenak

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Oraingoan Fran Idareta Goldarazena *Yraetatik Idaretara. Leinuaren jatorriari eta bilakari buruzko hurbilketa Zestoatik Navazera XIV. eta XX. mendeen artean (1. liburukia)* Oraingo liburu argitu du. Bere lanbidearekin, ikerketa ildoekin eta musikarekin zerikusia du, orri artean jaso gelditu baita "fami-liaren profil soziala, baita leinuko kideen balio eta bertuteei" buruzko aipamena.

Liburu pertsonalagoa esan dut, baina familia liburu esatea zehatzagoa litzateke, ezta?

Liburuan familiaren abizenaren jatorriaren bila noraino iritsi naizen azaltzen dut, denbora eta ezagutza gehien dutenek, hala nahi izanez gero, lanarekin jarraitu ahal izan dezaten. Beraz, nire ustez, ildo horretatik jotzen du, nire aita dena behar bezala dokumentatuta uzteko duen borondateari erantzuten diodalako, ikerketak aurrera egin dezan.

Non du jatorria halako liburuak?

Gure amari arbaso guztiekin XVI. mendera arteko zuhaitz genealogiko bat oparitu ondoren, aitak bere abizenaren jatorria ezagutu nahiko lukeela esan zidan abenduaren 25ean. Liburuaren bidez berak nahi izan du bere familiak, eta gaian interesa duten



Fran Idareta Goldarazena. IÑAKI ALDATZ

gainerako pertsonak, ikerketan izandako aurrerapenak ezagutzea, ikerketak etorkizunean jarraitpena izan dezan. Liburuaren sustatzaile nagusia aita izan da.

Zer jaso duzu liburuan?

Liburuan Idareta abizenaren jatorriaz hitz egiten da, mendetan zehar izan duen hizkuntza aldaketaz, gure arbasoetako batzuk bizi izan ziren kokagunez eta familiaren gutxi gorabeherako gizarte profilaz. Horrekin batera, erabilitako bibliografia, kontsultatutako sakramentu partida askoren erreferentzia

osoak, ehun irudi inguru, dokumentu garrantzitsuen transkripzioak eta mendeetan zehar Idareta sendiaren ibilerak kontatzen dituen gesta-kanta. Abesti horren grabazioak Iker Bengotxea eta Izaskun Zurutuza arduratu dira (Sudurgorri Vocal Studioetakoa) eta Javier Asin Asin (Asin Soundedekoa) ekoizpen eta masterizazioaz. Liburuaren aurkezpen egunean emango dugu ezagutze-ra. Hiruei eskerrak.

Genealogista lana hartu duzu?

Ez da erraza izan, baina aditu bikainen laguntza izan dut.

Eta nora eraman zaitu ikerketak?

XIV. mendeko Zestoara.

Zenbat egin duzu atzera?

1561era arte laguntza dokumentalarekin. Baina bistan da leinuaren jatorria XIII. mende bukaerako edo XIV. mende hasierako dela.

Non arakatu duzu?

Funtsean, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan eta Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan. Baina baita Gipuzkoako Artxibo Orokorrean eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan ere, besteak beste. Eskerrak Juncal Campo Guineari, Teresa Alzugaray Los Arcosi, Jose Angel Garro Muxicari, Miriam Echeverria Larari, Ana Otegi Atorrasagastiri eta Jesus Mauleoni.

Halakoetan ate batek hainbat zabal ditzake, ez denak egokiak. Nolako izan da ikerketa?

Honen inguruan ez zegoen ezer idatzita. Beraz, hutsetik hasi behar izan nuen. Ikuspegi genealogikotik hasi nintzen, eta subjektu gehienak identifikatu nituenean eta abizenaren bilakera morfologikoa ezarri nuenean, bizi izan ziren kokaguneak aztertzeari ekin nion, eta, ondoren, haien profil soziala aztertzeari.

Zenbat denbora eman duzu?

Bost hilabete gogor pasatu ditut. Aurretiazko hipotesi batzuk aztertu nituen, baina berriz formulatu behar izan nituen, profesionalei eta informatzaileei aldi berean egiten nizkien elkarriketatik lortzen nituen datuen arabera.

Zer dute norberaren sustraiek zer dute erakarmen hori sorrarazteko?

Victoria Campsek zioen identitateak batasuna ematen diola bizitzari, iragana jaso eta aurretiazko proiektatzen duela, balio batzuk finkatzen dituela, jarraitutasunak edo trantsizioak mar-

katzen dituela. Azken batean, existentzia bera zentzuzko narrazio bihurtzen du.

Dialektologoa ere izan zara?

Adituen laguntzarekin, eraman-garriagoa izan da.

Laguntzarik izan duzu liburu egiterako?

Gurasoek liburuaren xehetasun guztien berri izan dute hasieratik eta ahal izan duten guztian lagundu didate. Emaztea ere funtsezko pieza izan da. Bestalde, artxiboetan dena erraztasunak izan dira. Horregatik, zure baimenarekin, nire esker ona adierazi nahi diet. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen argitalpen hau egitea. Azkenik, niretzat bereziki esanguratsua izan da Jesus Mauleon letren maisuaren laguntza, hitzaurrearen ardura atseginez hartu baitzuen. Hemendik nire esker on sakona zure hitzengatik.

Zergatik irakurri beharko genuke?

Idareta familiari buruzko sei mendeko historia ezezaguna kontatzen delako. Sei mendeko historia familiak berak ezagutzen ez duena eta liburuaren aurkezpen egunean lehen aldiz ezagutuko duena.

Non eskuratu daiteke liburuak?

Une honetan Amazonen eta Fnac-en. Hori bai: plataforma hauetan liburu zuri-beltzean egongo da. Gure aldetik, oso edizio berezi eta mugatua egin dugu bildumagileentzat (koloretan, koadernaketa berezi batekin, eta abarrek), bereziki familiako kideen artean zabalduko duguna.

"FAMILIA ABIZENAREN JATORRIAREN BILA NORAINO IRITSI NAIZEN AZALTZEN DUT"

**DORRAUKO JAIETARAKO
2 TABERNA
ALOKATZEN DIRA**

Jaiak abuztuaren 12tik 15era izango dira

Interesatuak e-mail honetara idatzi dezatela
ifturaldeaalkarte@gmail.com
uztailaren 22 baino lehen.

BiL TOKI
TABERNA • JAIETARAKO

**Eguneko
menua 11 €**

**Menu
berezia 15 €**

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

**Odol emaileen
hamaika domina
sakandarrendako**

Adonak odol emaileak omentzeko ekitaldia egin zuen igandean. Elkarteko presidente Anton Zubasti Madozek nabarmendu zenez, "odol ematea ezin da gutxi batzuen bizkar utzi, jendartearen inplikazio kolektiboa behar da". Emate kopuru borobiletara iritsi ziren 208 pertsonak aitortza jaso zuten, eta horietatik 11 sakandarrek ziren: Pello Egurza Azpiroz

lakuntzarra (150) eta Pedro Mari Sagardia Etxarte irurtzundarra (100). Beste bederatzi sakandarrek 50 emate egiteagatik ere aitortza jaso zuten: Irurtzungo Paki Bello Gasco eta Julian Moral Espoz, Jesus Antonio Zubietza Zarranz (Uharte Arakil), Beatriz Razkin Razkin (Lakuntza) eta Altsasuko Jose Eugenio Alegre Manso, Francisco Javier Casteig Barandiaran, Juan Manuel Etxeberria Aiestaran, Eulogio Gonzalez Navascues, eta Francisco Jose Rivero De la Marta.



Bakaikuko barnetegiaren aurrean ikasleak bilduta. UTZITAKOA

Bakaikuko barnetegiak bere hiru hamarkadak ospatuko ditu

Euskara irakasteaz aparte, irekiak izanen diren hainbat kultur emanaldi antolatu dituzte udarako

BAKAIKU

"Euskara ikasteko leku bat da, klase teoriko hutsez aparte ikasleek 24 orduz euskaraz bizitzeko aukera dute bertan. Normalean eguerdira arte klaseak ematen ditugu. Arratsalde batzuetan ere bai. Baina arratsalde gehienetan ikasleek kultur ekarpenak, irteerak, hitzaldiak eta abar izaten dituzte". Hala azaldu du zer den barnetegi bat Ainhoa Arregi Elosuak, Zenbat Gara elkarteak kideak. Harena da Bakaikuko etxea barnetegi. Bakaikuko Galtzada kaleko 12. zenbakiko eraikina 1990tik jendea euskalduntzeko lantegia da. 30 urteurrena 2020an ospatu nahi zuten, baina pandemiak ospakizunak bi urte atzeratu dizkie. San Joan bezperan haurrendako ikuskizun batekin hasi ziren ospakizunak. Eta festetan, garilaren 23rako bertso-poteoa antolatu dute. Egun horretako auzatea ere elkarteak eskainiko du. Urteak dira festetan egun batez auzatea eskaintzen dutela. Urteurren ospakizunen barruan bakaikuarrekin batera herri bazkari bat egitea nahiko luketela azaldu du Arregik. "Gainera, ikasleek daudenean, astean behin, ikasleendako kultur ekitaldi bat izaten dute eta horietara bakaikuarrak beti gonbidatzen ditugu". Hitzaldiak, kontzertuak, zirku tailerra edota bertsolariak izanen direla jakinarazi du.

Bi asteko barnetegiak, batez ere, Aste Santuan eta garagarzarotik irailera egiten dituzte. Urtean zehar formatu txikiagoko egonaldi batzuk ere antolatzen

dituzte. Barnetegian izena emateko 16 urte izan behar dira gutxienez barnetegian. Garilean, batez ere, 16 eta 18 urte inguruko gazteak izaten dira, baina agorrietik aurrera adin guztietako ikasleak izaten dituzte. Ikasleek "hainbat motibaziorengatik" ematen dute izena: "asko joaten dira lanerako titulu bat aurkeztu behar dutelako. Beste asko familian edo lagunartean jende euskalduna daukatelako eta haiekin euskaraz egin ahal izateko edo seme-alabak eskolan ere euskaraz ikasten ari direlako eta seme-alabei laguntzeko. Denetarik izaten dugu".

Arregik azaldu duenez, "guk Bilbon Gabriel Aresti euskaltegia dugu eta udan barnetegiak egiteko Euskal Herri erdian kokatuta zegoen etxe baten bila ari ginen. Guretako, sinbolikoki, Nafarroa leku aproposa zen eta etxe hori hartzeko aukera sortu zitzaigun". Eraikinak 300 bat m²-ko hiru solairu ditu, eta aurrean lorategia. Beheko solairuan egongela, jangela, sukaldea eta liburutegia daude eta beste bi solairuetan logelak eta dutxak, komunak eta abar. "Batzuetan" liburutegia ikasgela gisa erabiltzen dute, "baina, bestela, Bakaikuko Udalak uzten dizkigu gelak". Elkarteak udalarekin hitzarmena du eta, ondorioz, bakaikuarrek barnetegian dohainik ikas dezakete. Arregik jakinarazi duenez, bakaikuarrek aukera baliatzen dute: "gehienak euskaldunak dira eta euskara titulua eskuratzeko prestatzera etortzen dira".

Unibertsitarioak eta tituludunek praktikak egiteko aukera dute

Despopulazio arriskua duten toki erakunde edo enpresetan 28 praktika egiteko aukera eskaini dituzte

SAKANA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiarekin eta Despopulazioko Departamentuarekin elkarlanean garatutako programa da Sustriak, 120.000 euroko diru poltsa duena prestakuntza egonaldiak finantzatzeko. Hori esker, unibertsitatean ikasten edo edozein unibertsitatean ikasketak bukatu dituzten tituludunek Nafarroan despopulatzeko arriskuan

dauden udalerrietan praktikak egin ahal izango dituzte, lurralde arteko oreka lortzen laguntzeko, lurralde horietako ekoizpen, gizarte eta ekonomia sarea dinamizatzeko gai den giza kapitala iritsiz. Sakanaren kasuan Arakil, Uhartea Arakil, Arruazu, Ergoiena, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia udalerriak daude egoera horretan, baina, momentuz, Nafarroako beste herrietan eskaintzen dira praktikak.

NUPetik azaldu dutenez, Sustriak programak aukera ematen du lau hilabete inguruko (450

ordu) prestakuntza praktikoa egiteko. "Prestakuntza-egonaldi horiek NUPEk tutorizatuko eta ebaluatuko ditu. Lastailaren 31ra arte garatuko dira". Programako arduradunek azaldu dutenez, praktika horiekin ikasleek beraien "akademia ezagutzak praktikan jarriko dituzte benetako ingurune batean eta prestakuntza ikuspegi batekin".

Landa eremuko Erasmus Sustriak programak bigarren edizioa du eta 28 plaza eskaintzen ditu. Praktikak egiten dituzten ikasleek 3.636,7 euro jasoko dituzte. Haiek egin bitartean proiektu bat garatu beharko dute, praktika bukatu baino hamar egun lehenago aurkeztu beharko dena. Akaberan *Zeharkako kompetentzia profesionaletan espezializatzeko diploma Talen Upna* diploma jasoko dute.

Ilusiorako 30 arrazo

LAKUNTZA

Gaur bazkide izatera pasako dira atzo arte Sakana kooperatibako langile ziren 30 pertsona. Lanean ari diren 300 langileetatik, 174 bazkidek osatzen dute kooperatiba.



“Jendearen inplikazioa ikusten duzu”

Pello Betelu Ganboa

Bazkidea, 24 urte kooperatiban



“Konpromisoa formalizatzeko modua da bazkide egitea”

Itsaso Olazarán Ganboa

Bazkide berria

Zergatik batu kooperatibara?

Graduko praktikak egin ondoren, lanpostu bat sortu zen. Proiektuarekin gero eta inplikatuagoa sentitu naiz. Funtzionamendu modua barneratzea prozesu naturala izan da, eta nire bezala sentitzen bukatu dut. Hemen egotea harro egoteko moduko zerbait da.

Zerk erakartzen zaitu?

Enpresa handia izateak ikasteko aukera gehiago ematen du; profesionalki garatzeko aukera ere bai. Bezero gehienak nazioartekoak dira, gestio konplexua eta maila zorrotza ezartzen dute, erakargarria da.

Ametsik?

Lana sortzen, enpresa garrantzitsua izaten eta inguruan aberastasuna sortzen jarraitzea.

Zenbat zineten sartu zinenean?

60 bazkide zeuden, eta guztira 100 langilera ez ginen ailegatzuten. Inor jubilatzen ez bazen ez zen inor bazkide egiten, eta eskaera egiteko, gutxienez, hiru urte egin behar zenuen.

Lantegia ere aldatu da.

Pabiloi nagusia besterik ez zegoen, dena batera zegoen. Orain fundiziorako bi lantegi, mekanizazioarako beste bi, eta logistika eta biltegiatzeko bana.

30 bazkide berri, zer sentitzen duzu?

Poza, eta gehiago 80 eskaera izan direla jakitean. Ni jubilatzen naizenean nahi dut kooperatibak segitzea, lekukoa pasatzea. Jendearen borondatea da kooperatibaren altxorra.



“Partaide izatearen sentimenduak inplikazio handiagoa ematen du”

Mikel Lizarraga Galartza

Kooperatibako lehendakaria

Zer da kooperatibismoa?

Enpresa bat kudeatzeko beste modu bat da, ohituta ez gaudena. Bazkideek zuzendaritza taldearen esku uzten dute enpresaren kudeaketa, eta erabakietan parte hartzen dute (bazkideek), gizarte-organoen bidez: Batzar orokorra, kontseilu errektorea eta kontseilu soziala. Bazkide langile batzuek sortutako enpresa da, beraien parte hartze demokratikoaren bidez kudeatzen dena. Bazkide horiek beraien esperientzia eta jakintza jartzen dute, denen artean lan egiteko. Helburua da lana eta aberastasuna inguruan sortzea. Guk Sakana ibarrari erreparatzen diogu. Hori guztia enpresaren garapenerako da. Baina bazkideok jakin behar dugu hemen pasan gaudela: bazkide garen bitartean egiten dugu gure lana, gure esperientzia, gure jakintza transmititu eta, ondoren, utzi egin behar dugu. Lekukoa jaso dugu eta lekukoa pasa behar dugu.

Nola transmititzen da kooperatibismoa?

Denok dugu kooperatibismo zantzu bat barruan. Hori azalera-tu eta indartu egin behar da.

Zein da kooperatibaren DNA?

Bere balioak dira. Gureak dira: konpromisoa, autolaguntza, berdintasuna, ekitatea, demokrazia eta elkarlana. Balio horiek Sakana transmititza eta indartza da gure eginkizuna.

Zein dira kooperatibismoaren abantailak?

Kudeaketarako modu desberdina duen enpresa da, aldi berean, langile eta jabe zara. Horrek sortzen du identitate bat eta partaide izateko sentimendu bat.

Elkarlan horrek, partaidetza sentimenduak nortasun bat ere sortzen du, ezta?

Hori modu positiboan hartzen badugu, bertako bazkide eta langile izatearen harrotasuna da.

Hemen sartu zinenean, zer zenekien kooperatibismoaz?

Egia esan, oso gutxi. Ikusten nuen proiektu polit bat zela, baina kontzeptuaz jakintza handirik gabe.

Hori lanean hartu duzu?

Hemen kontratatu moduan lanean hasten zara eta pitteka zer den ikusten duzu: zein organo dauden, enpresak zer forma hartzen duen, nola kudeatzen den. Hemen egonda ikasten da.

Nahiz eta zuk barruan balio horiek denak izan, batu behar dira.

Esan didazu enparengatik, 2025ean 50 urte beteko dituzue.

Bai, 50 urte kopuru handia da. Hemendik bazkide sortzaileak omendu eta eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien ahalegin eta ekimenik gabe ez baikenuke proiektu honen urrezko ezteik ospatuko.

Lehiatzeko garaian zer ematen dizute dituzuen balioek?

Partaide izatearen sentimendu horrek inplikazio handiagoa ematen du. Enpresarekiko edo lanarekiko konpromiso gehiago, zuretako ari baitzara lanean.

Nola gauzatzen da konpromiso soziala?

Bertako jendartearekin konpromituago gaude, dela kultura, kirol edo gizarte arloetan. Gure irabazien %5 horretara doa. Hainbat elkarterekin kolaborazioa eskatzen dute, proiektuak baloratzen dira eta laguntzak bideratzen dira. Besteak beste, Josefina Arregui Elkarteak, DYA, ELA, bailarako kirol elkarteak... Garrantzitsua da aberastasuna ematea ondoko herri, elkarte, talde eta jendeari.



Pieza baten iragaztea.



Automobilgintza pieza.



Eolikoko kalitate kontrola.

Ostirlean 30 bazkide berri. Pozik?

Jakina. Azkenean, enpresan odol berria sartzea positiboa da. Esperientzia hemen dauka, kontratatuta daude. Orain puntu bat gehiago, parte hartu ahaliko dute kooperatibako organoetan.

Ekarriko dizuete beste ikuspegi bat.

Enpresa bertatik ikusi dute. Denok gara Sakana, bazkideak eta ez bazkideak. Baina kooperatiba beste modu batean ikusten dute. Lehen kontratatuak ziren eta kooperatiba pixka bat aparte zuten. Orain, organo horietan parte hartzea ona izanen da haiendako eta guretako ere bai, kooperatibismoa indartzeko. Kooperatiba aberastuko duten ikuspegiak ekarriko dituzte.

Gehienak gazteak dira?

Asko bai. Bazkideen taldea gaztetzeko balioko du. Eta adin tarte asko izatea ere ekarriko du. Denetarik egon behar du: urte asko daramanak esperientzia eskaini dezake. Baina gazteek gogo edo jarrera puntu bat ematen dute. Adin tarte guztietako jende guztia da garrantzitsua. Hezi dugun jende batekin haziko da kooperatiba.

Nahiko urte zailetatik heldu zarete. Negua joan da?

Azkeneko urteak nahikoa gogorak izan dira batez ere pandemiarengatik eta egoera zehatz batzuegatik. Bazkide berriak egitea kooperatibari aldaketa bat egitea da. Haiekin kooperatibari ilusio berria eman diezaiogegu, bazkide berriei eta dagoeneko gaudenoi; indartsu sentitzea, proiektuak segida duela sinistea.

Duzuen guztiari segida emateko?

Inplikazioa behar da. Balio guztiak praktikan jartzen baditugu enpresako guztiendako eta inguruko herrietarako ere ongizatea lortuko dugu. Horretan ahaleginduko gara.

“Hurrengo urteetako ikuspegia ilusioz betea eta zorrotza da, erronka handia izango da.”

Jaime Urcola Echeverria

Kooperatibako gerentea

Sakana, fundizio bat, eta gehiago?

Kooperatiba. Eskualdeko birketako bat da. Hona erakarri ninduen erronketako bat izan zen. 300 bat langile gara. Gauza garrantzitsua da. Fakturazio kopuru garrantzitsuak ditu.

Garai batean fundizioa zen soilik.

Orain balio erantsi handiagoa ematen diogu. Lehengai erosi eta pieza fundituta, mekanizata, pintatuta eta paketatuta ematen dugu munduko edozein lekutara.

Zein sektoretan zaudete presente?

Fundizio pabiloietako bat soilik haize sektorearendako da. Gaitasun handiena duena da. Gaur egun %60 haize sektorearendako ari gara. Gainontzeko %40 itsas ontzigitza, makina erreminta, meatzaritza eta porlandegiendako, automobilgintza eta paper fabrikendako ari gara.

Zer egiten duzue?

Itsasontzi oso handiek gila izan beharrean kontrapisuak izaten dituzte eta guk burdinazkoak egiten ditugu, eta motorrak.



Makina erremintan fresatzailen mahaiak, zutabeak eta beste. Haize errotendako zenbait pieza: palak bat egiten duena; dorrea eta goiko parte lotzen dituen, errotazio ardatzak eta beste. Automobilgintzan piezak estapanatzeko trokel ugari egiten ditugu. Meatzaritza harria txikitu eta meateratzeko izugarri handiak diren pieza asko egiten ari gara. Papera egiteko piezak, Europatik kanporako.

Non daude Sakana kooperatiban ekoiztutako piezak?

Ekoizpenaren %80 inguru zuzenean atzerriara doa. Baina, esaterako, Goierriin makina bat egiteko saldutako pieza, azkenean, kanpoan saltzen da. Beraz, munduko edozein tokitan daude.

Pieza handietan espezializatuta zaudete?

Txinarekin lehiatu behar dugu. Haiek prezio merkea eskaintzen dute. Lehiatzeko pieza handietan espezializatu gara, halakoak Txinatik ekartzea oso garestia baita. Gu European

lehiakorrak gara. Pieza handi-
goak egiten ditugu.

Zein sektoretan sartu zaitezketen aztertzen zaudete beti?

Beste sektoretan garatzen saiatzen gara, baina batzuetan burdina baino gehiago altzairua erabiltzen da. Beti materialaren ezaugarrien arabera oreka bilatu behar da, bezeroari eman ahal izateko. Horretarako, nahasketak egiten ditugu erresistentzia handiagoak lortzeko. Orain material belaunaldi berri baterako homologazioa dugu: burdina arinagoak eta erresistenteagoak. Horrek etorkizunean lehiakortasun handia eman diezaguke.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gas isuriak murrizteko helburuak betetzeko gizartea oso mantso doa. Erabakiak atzeratzen ari dira, baina datak hor daude. Unerik okerrean boom-a heldu da. Gizateriak haize errota parke pila egin behar ditu, data ez da mugitzen eta krisi ikaragarria dugu. Elektrizitatea, lehengaiak eta buru-

ratzen zaizun guztia prezioz igo da gehien ekoizti behar dugun garaian. Sakanak egiten duena gutxi egiten dute. Hurrengo urteetako ikuspegia ilusioz betea eta zorrotza da, erronka handia izango da. Eta erronka horren barruan handitzeko aukera dago. Belaunaldi berriko fundizioak lirakeke. Pabiloien eraikuntza orain ixten ari garen kontratuen arabera izanen da. Eskaria handitzeak eta etorkizuneko piezen ezaugarriek inbertsio handiak eta berriak eskatzen dituzte etorkizun hurbilean. Horietako batzuk CO2 aztarna murriztera bideratuta daude.

Next Generation planean sartu zarete?

Nafarroako Gobernuak proiektu bat onartu zuen. Beste proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek inbertsio egiten eta Eusko Jaurlaritzak onartu zuen. Interesekoak eta garrantzitsuak zirenez, biak zuzenean Moncloara joan ziren. Eta dena lo dago, etsigarria da.

Zerk sortzen dizu ilusioa?

Araoak konpontzeak. Testuinguru ekonomiko oso zaila dugu, sekula ez dut halakorik bizi. Buelta eman ahal izatea, gauza eraginkorragoak egin ahal izatea, garapen eta ekoizpen proiektu bat egin ahal izatea eta beste. Hori, niretako, oso motibagarria da.

Zein argazki egiten zenuke?

Merkatuaren eta bestelako funtzionamenduaren arabera hainbat proiektu ditut. Etorri aurretik prest egotea gustatzen zait, hala iristen denean botoia sakatzea besterik ez da. Horrek esan nahi du lehena zarela, aurretik zoazela, aztertu duzu eta sakatu dezakezu. Urte zailak heldu dira, gerrikoa estutu behar da bai ala bai. Lehiakorrak izan behar gara. Eta dauken aukeren bila joan behar dugu. Hitza ilusioa da.



Piezaren mekanizazioa.



Eolikoko piezaren mekanizazioa.



Mekanizazio fabrika.



Galdaketa fabrika.



Fusio prozesua.

FESTAK

ARRUAZU

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala

15:00 Bakoitza bere etxeko ataria garbitzera.
19:00 Suziria, herriko etxetik.
19:30 Meza, San Pedro basilizan.
20:00 Merendua, Sanpedrondon.
Baserritarrez janzteko deia egin dute.
20:30 2020an jaiotakoei herriko zapiaren banaketa.
22:00 Haurrendako zezensuzkoa.
22:30 Arbazuko zortzikoa, herriko plazan.
22:45 Afaria Itur Gain elkartean.

UZTAILAK 2 Larunbata

17:00 Haurrendako jolasak eta ginkana gazteen eskutik.
19:00 Mus txapelketa, Azkarra elkartean.
Bingo musikatua, gazteen eskutik.
20:00 Gazta eta ardoa, plazan.
20:30-22:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.
22:00 Haurrendako zezensuzkoa.
00:30-04:30 Zirriyek eta irriye Gabenara taldearekin.

UZTAILAK 3 Igandea

12:00 Meza.
12:30-15:00 Haurrendako eta gazteendako jolasak.
15:00 Herri bazkaria.
17:00-19:30 Haurrendako eta gazteendako jolasak.
20:00 Gazta eta ardoa, plazan.
20:30 Los Tenampasekin doinu mexikarrak.
22:00 Haurrendako zezensuzkoa.
Herri parrillada, plazan.
00:30-04:30 Asier DJrekin disko jartzaile festa.

UZTAILAK 4 Astelehena

15:00 Herri paella, zuhaizpien.
18:00 Herri kirolak: Imermaubek Azkonarren aurka.
19:30 Haurrendako txokolatada.
20:00 Gazta eta ardoa.
22:00 Haurrendako zezensuzkoa.
22:30 Herri parrillada, plazan.

UNANU

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala

09:00 Gosaria.
12:00 Txupinazoa eta trikitixa.
12:15 Auzatea.
15:00 Herri bazkaria, elkartean.
17:30 Trikitixa.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00 / 00:00-04:00 Kenbat taldearen emanaldia, plazan.

UZTAILAK 2 Larunbata

12:00-14:00 Haurrendako puzgarriak.
Txaranga eta poteoa.
15:00 Herri bazkaria.
16:30-19:30 Haurrendako puzgarriak eta jokoak.
18:00-20:00 Txaranga.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00 / 00:30-04:30 Alaiki taldearen emanaldia, plazan.

UZTAILAK 3 Igandea

11:00 Pilota partiduak.
12:00-14:00 Txaranga.
15:00 Herri bazkaria.
18:00-20:00 Txaranga.
20:00 Auzatea.

LIZARRAGABENGOA

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala

19:00 Festen hasiera.

Puzgarriak eta bonba japoniarrak.
19:30 Auzatea eta trikitilariak.
21:30 Afaria.
01:00-02:30 Musika.

UZTAILAK 2 Larunbata

12:00 Etxez etxe trikitilariekin.
16:00 Puzgarriak.
17:00 Bonba japoniarrak.
18:30 Aizkora.
19:30 Auzatea.
21:30 Afaria.
00:00 Mariachi Imperial Elegancia Mexicana taldearen emanaldia.

UZTAILAK 3 Igandea

12:00 Etxez etxe trikitilariekin.
16:00 Puzgarriak.
17:30 Bonba japoniarrak.
18:30 Altsasuko Fanfarrea.
19:30 Kontzentrazioa: Etxera bidea gertu. Denok itxa!
20:00 Auzatea.

URDIAIN

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala

19:00 Koldo Zuazoren Burundako hiztegiaren aurkezpena.
Ondoren, beindua eta taza.

UZTAILAK 2 Larunbata

12:00 Etxajua, Festen hasiera, Txorongo Txarangak alaituta.
13:00 Kuadrillen arteko kalderete txapelketa, UGAK antolatuta.
17:00 Eskolarteko txirindula lasterketa, Burunda Txirindularitza Taldeak.
20:15-22:00 Kresala taldearen emanaldia.
22:00 Herri afaria.
01:00-04:00 Kresala taldearekin dantzaldia.



ALTSASU-URDIAIN Egutegian gorritz markatutako eguna da ekainaren 29a Altsasun; San Pedro eguna. Sanpedrozelain jende asko bildu zen, bi urtez festa modu ofizialean bertan behera egon ondoren. Igandean urdiaindarrak bilduko dira San Pedro ermitaren inguruan.

UZTAILAK 3 Igandea

10:30 Ardo banaketa, San Pedroko hariztian.
12:30 Meza Nagusia, SanPedroko basilizan.
14:30 Bazkaria, San Pedroko zelaietan.
17:00 Zortzikoa.
19:00 Salbea eta herrira itzulera.
20:00-22:00 Sukar taldearen emanaldia.
22:00 Zezensuzkoa
00:30-02:30 Oharkabe taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 4 Astelehena

10:00 Tintinurrik eskainitako gosaria, Alondeien.
12:00 Meza.
12:30-14:00 Fidel Zelayekin dantzaldia.
14:30 Jubilatuen bazkaria.
15:00 Gizonen bazkaria, Irunberriko txarangarekin.
19:00 Altsasuko dantza taldearen emanaldia.
20:00-22:00 / 24:00-03:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 5 Asteartea

10:00 Gizonek eskainitako gosaria, Alondeien.
12:30 Chuchín Ibañezen emanaldia, plazan.
14:30 Emakumeen bazkaria, Turrutxiki txarangarekin.
17:30 IV. Urdiain Saria kadeteen mailako lasterketa.
Burunda Txirindularitza Taldeak antolatuta. 56 km, Altamirara behin igoko dira.
22:00 Zezensuzkoa
00:30-03:00 Orots taldearen emanaldia, plazan.

UZTAILAK 6 Asteazkena

10:00 Aitziber elkarteak eskainitako gosaria.
12:00-14:00 Ur txirrista.
14:30 Herri bazkaria.
17:30 Etxez etxe, Txaranga Txorongorekin.
16:00-18:00 Ur festa.
20:00-22:00 / 00:30-03:00 Ganbenara taldearekin dantzaldia.
* Egunero, egurdian eta iluntzean, ardoa banatuko da.



HARATEGIA
Lugar de Epikostua
CARNICERIA

Arkumea, antxumea eta txerrikumea temperatura bajaran eginda.
30 minutu labean eta mahaira.

ETXEAN HAZITAKO TXEKOR HARAGIA
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo 



SAKANAKO
erraldoiak
ezagutu

UZTAILAK 15
ERRALDOIAK

ETXARRI ARANATZ,
IRURTZUN ETA OLAZTIKO

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus



UTZITAKOIA

IRURTZUN Haize Txikiak Banda

8 eta 16 urte bitarteko 32 gaztek osatu dute lehenengo Haize Txikiak Banda. Asteazken zehar Irurtzunen gaur Gernika parkean (19:00) eta igandean Etxarri Aranazko plazan (13:00) emanen dituzten kontzertuak prestatzen egon dira, baita musika tailerrak eta jolasak egin dituzte ere.

OSTIRALA 1

ALTSASU Batzarra.

Festetako herri bazkaria prestatzeko batzarra. Altsasu Auzolanean Eraikizenez deituta.
18:30ean, Gure Etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Haize Txikiak Bandaren mustutzea.
19:00etan, Gernika parkean.

ALTSASU Aurkezpena.

GKSren eta IAren Durangon egindako Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena. Ondoren, pintxo pote.
19:30ean, gaztetxean.

IRURTZUN Musika parkean.

Haize Berriak Bandaren kontzertua.
20:00etan, Gernika parkean.

LARUNBATA 2

IRURTZUN IV. Irurtzun-Arakil Rallysprint.

Nafarroako asfalto txapelketa.
09:00etatik 19:30era, plazaatik.

ALTSASU Nafarroako ekoizle ekologikoen merkatua. Iruñeko ekomerkatuaren edizio berezia. NNPEK-k antolatuta.

Baratzeko Biden.

09:30-14:00 Ekomerkatua:

Bakedanoko lekaleak, garagardoa eta sagar zukua; Iturioniengo ardi gazta; Kaparrotsuko barazkiak; Eulzeko olio; Altsasuko ardi gazta; Izurzuko ezti; Faltzesko olio eta almendra heldugabe; Erratzuko behi gazta; Munarrizko patatak eta txitxirioak; Oibarko ardoa; Berako ezti; Dorraoko ardi gazta; Uharteko Arakilgo barazkiak eta arrautzak.

09:30-14:00 Haurrendako jarduerak, Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

10:00-20:00 Barazki ekologiko erraldoien figuren erakusketa.

11:30-12:30 Nekazaritza ekologikoaren inguruko hitzaldia. Hitzalaria: Mirian Otxotorena.

OLAZTI Trasteandoren emanaldia.

Trasteando taldearen Burundatik herriz herri kalejira.
18:00etan, jubilatuen elkarteetan;
20:00etan, plazan.

ZIORDIA Trasteandoren emanaldia.

Trasteando taldearen Burundatik herriz herri kalejira.
20:00etan, plazaatik.

IGANDEA 3

UHARTE ARAKIL

Lakuntzetxearen mustutzea.

Aralarko San Miguel santutegian mezenazgo bidez egin duten eraikinaren mustutze ekitaldia.
12:00etan, santutegian.

UHARTE ARAKIL Kontzertua.

Etxarri Aranazko Abesbatzaren emanaldia Bidea handitzen programaren barruan. Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatuta. Zuzendaria: Alicia Armendariz.
12:30ean, Aralarko santutegian.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Haize Txikiak Bandaren emanaldia.
13:00etan, plazan.


ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen Mugimenduak deituta.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.



ZURE PUBLI ZITATEA HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/

ESKELA



Jose Luis Sobredo Lobato

Zuekin gaude une gogor hauetan.
Maitasunez

Triki eta Edurneren kuadrilla

ESKELA



Mercedes Arbizu Maiza

'Mertxe'

Iruñean hil zen, 2022ko ekainaren 23an, 90 urte zituela.

—Goian bego—

Familiak eskerrak eman nahi dizkie une honetan babesa eskaini diguten guztiei.

Etxarri Aranatzan, 2022ko uztailaren 1ean.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN ESKAERA

48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketara lan egiteko prest. Telefono zenbakia 653998035

LAN ESKAINTZA

Jaibusean arduradun lana egiteko jendea behar da: Interesa dutenek deitu hauetako telefono batetara: Irurtzunen 605 466 805, Etxarrin 679 534 481 eta Altsasun 616 841 995. Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

LEHIAKETA

Lakuntzako festetako Playback lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik: Abuztuaren 28an, igandean, egingo den lehiaketan parte hartzeko partaideen izenak eta aukeraturakotako kanta jakinarazi behar da emailaz lakuntzakultura@gmail.com helbidera idatziz abuztuaren 15a baino lehen. Baldintza bakarra kanta euskaraz izatea. 3 sari egongo dira, animatu eta parte hartu!

Bakaikuko festetan Playback erakustaldia: festetako lehenengo egunean, uztailaren 22ko arratsaldean, playback erakustaldia egingo da plazan, adin guztiei zuzendua dago. Udaletik dantza prestatzen hasteko eskatzen dute. Animatu!!

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana

aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabek. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

IKASTAROA

Iturmendiko 2022/2023 ikasturteko ikastaroetan izen ematea zabalik: 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat ludoteka ingelesez, multikirola eta xakea, euskal dantzak, marrazketa, trikitixa, panderoa, txistua, dantza modernoa, gorputz adierazpena, psikomotritzitatea, pilatesa eta ingelesa ikastaroetan eman daiteke izena. 16 urtetik gorako gazte eta helduentzat marrazketa, trikitixa, panderoa, psikomotritzitatea, txistua, dantza modernoa, gorputz adierazpena, boxeoa, pilates, ingelesa eta frantsesa ikastaroetan. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615 704 540 telefonora. Iturmendiarrez

aparte, bakaikuarrek eta urdiaindarrek ere eman dezakete izena.

Intiak antolatutako nekazaritza eta abeltzaintzan hasteko ikastaroan izen emateko epea zabalik: Sektorean profesionali hasi behar dutenek beharrezko trebakuntza lortzeko helburuarekin egingo da. Gazteei zuzendutako ikastaroa da, formatu erdipresentzialan, 200 orduko izango da eta abuztuaren hasten da. Izena emateko epea uztailaren 29an amaitzen da. Interesa baduzu deitu 948 013 058 tfnora 8:30tik 14:00etara ordutegian. Ikastaroak 425 euroko kostua du.

OHARRA

Olatziko jaietan haurren zapi banaketarako izen ematea: Urteroko ohitura jarraituz, aurreko urtean jaiotako haurrei zapi banaketarako zapi festetako lehenengo egunean. Aurtengo urtean jaiotako haurren gurasoek izena eman beharko dute Udaletxean uztailaren 15a baino lehen zapi jaso nahi izatekotan.

Nafarroako Torturatuaren Sarearen kanpaina: Elkarrekin batean batu dira eta gastu guztiei aurre egin ahal izateko dirua biltzeko kanpaina bat hasi du. Ekarpinak kontu korrontean honetan egin daitezke: ES23 3035 0058 3905 8011 6401.

Nerabeendako Campusa Arakilen: 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua, aisialdi eskain-

tza agorriaren 16tik 26rako astegunetan izango da, 10:00etatik 13:00etara ordutegian. Izena eman nahi dutenek 634 584 226 edo 948 500 101 telefonoetara deitu dezake edo arakilkultura@gmail.com emailera idatzi dezake. Arakilen errolatutakoek 40 euro ordainduko dituzte eta Arakilen errolatuta ez daudenen 50 euro. Udaletik zenbait jarduerak osagarri ekonomikoak izan dezaketela ohartarazi dute. Guraso bakar eta familia ugarietako %20 ko deskontua egongo da.

Olatziko musika eskolan izen ematea zabalik: Olatzagutiko Udalak musika eskolan izena emateko epea zabalik du. 2022-2023 ikasturtean Olatzagutiko udal musika eskolan 5 urtetik gorako haurrek musika eta mugimendua ikasteko aukera izanen dute. Horretaz aparte, musika hizkuntza ikasteko aukera ere izanen da. Gainera, instrumentuak jotzen trebatzeko modua ere eskaintzen du Olatzagutiko udal musika eskolak: akordeoia, trikitixa, bateria, pianoa, gitara, baxua, gitara elektrikoa, saxofoia, klarineta, zeharkako txirula eta tronpetita-tronboia. Matrikula orria bete ondoren, hura olazti@olazti.com e-postara bidali edo udaletxean aurkeztu daiteke jendareko ordutegian, astegunetan 10:00etatik 14:00etara.

Lakuntzako festetan 2021 urtean jaiotako

haurren harreraren prestaketa: Lakuntzako Udalak festetan hasieran joan den urtean jaiotako umeei harreraren egiten die zapi bana oparitzen. Errolatuta ez dagoen haurren batek zapi jaso nahi badu udaletxean izena eman beharko du. Izen ematea uztailaren 22an amaitzen da.

Altsasuko Gazteriako Zerbitzu – Inxostiapuntaren udako ordutegia: ekainaren 6tik irailaren 23ra arte, astelehenetik ostiralera 18:00 – 20:00.

Aralarko San Migel Santutegiko beharrik ikusita, erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzeko dutenentzat, eta bertan harrera-lekua, kontrol-gunea, denda eta komunak, baita interpretazio-zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberrietako proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektu denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Gazteen Jaibuserako baimena: Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripak sahesteko. Lehen bidaia maiztaren 7an egingen ditu Iturmendin eta Altsasun festa baita. Jakinik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egiten da eta Jaibusera igotzeko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gu-

rasoko edo legezko tutorekin egin beharko dute beraien eremuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanez eta inprimakia bat bete. Irurtzango OGZ udaletxeko lehen solairuan, tfnora 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxeko bigarren solairuan, tfnora 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnora 948 467 662

Konposta eskuragai. Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzua jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramateko gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzu dirulaguntzak: Euskaltegiandako, UEUn ikastaroak egin dituzte udelekuetara joan direnendako, euskara ikasten daudenendako eta Errotulak (dendetan etab) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskararak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoa bidez aurkeztu beharko dira. Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

HERIOTZAK

• Jose Luis Sobredo Lobato, ekainaren 23an Altsasun.


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!


948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 1




Larunbata, 2



Igandea, 3



Astelehena, 4



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Sakandarrak indartsu Triku Trailean

MENDI LASTERKETAK Walther Becerrak eta Ainara Urrutiak erraz irabazitako lasterketan Eukeni Goikoetxea altsasuarra laugarren sailkatu zen eta Marina Zabala lakuntzarra hirugarren. Antolakuntza kontentu dago eta boluntarioen lana eskertu du

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Igandean Etxarri Aranazko kanpinean jokaturako Triku Trailean 247 korrikalari zeuden izena emanda eta horietatik 190 korrikalari hartu zuten irteera, agian euria iragartzen zutelako, baina azkenean ateri mantendu zen, fresko, korrika egiteko eguraldi bikaina. Hori bai, lurra irristakorra zegoen probak zituen 21 kilometroetan (2.800 m desnibel +). Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria zen.

Hirugarren kilometrotik

Probari abiadura handiz ekin zioten korrikalariak. Guztien artean Walther Becerra (Sestao) nabarmendu zen. Bizkaitarrak hegan egin zuen Triku Traileko ibilbide gorabeheratsuan, hirugarren kilometrotik aurreko astean Camille Extreme irabaztetik zetorren Ilunberriko Xabier Zarranzi aldea atera eta gero. Maitzegur dolmena eta Auntzete gaindituta, lasai asko iritsi zen Lizarrustiko hornidura gunera, Txaradigorritik Arginbutara jaitsi eta gero, eta hala jarraitu zuen aurrera. Segituan Txaradigorri dolmenera iritsi zen, goreneraino, lasterketako puntu gorenera hain zuzen ere, hura jaitsi, Etxarri, Bakaiku eta



Eukeni Goikoetxea hirugarren zen Lizarrustin, baina laugarren iritsi zen helmugara.

Ataun herrien muga den Hirumugetaraino igo, eta Jentilzulo, Iruiturrieta eta Bentatxarretik jaitsita, Iraigorriaraino heldu zen, azken igoerari, Fagamendiri, ekiteko. Handik, haritzen bide ederretik barna iritsi zen Etxarriko kanpineko helmugara (1:45:34), han bildutakoen txalo artean. Becerrak ia hiru minutu atera zizkion atzean segika zuen Ilunberriko Xabier Zarranzi (1:48:26), eta Aimar Otxoteko lesakarrak osatu zuen podiuma (1:50:01), Lizarrustin hirugarrena zen Eukeni Goikoetxea altsa-



Marina Zabala, hirugarren. TRIKU TRAIL

suarra gainditu eta hari segundo batzuk aterata (1:50:14). Podiumera igotzear geratu zen Goikoetxea.

Alderik ez

Emakumezkoetan duela aste pare bat Lakuntza-Aralar irabaztetik zetorren Ainara Urrutia aretxabaldarrak ez zuen areriorik izan (2:08:00). 12 minutu atera zizkion Leire Elola tolosarrari (2:20:34). "Nire erritmoan aritu naiz, gustura. Ez da distantzia luzea, baina ibilbide oso gorabeheratsua da, gogorra, etengabeko jaitsierak eta igoerak daudenez ez du errekuaratzeko tartetik eskaintzen" azaldu zuen 41 urteko korrikalari veterano txapeldunak. Hirugarren Marina Zabala lakuntzarra izan zen (2:25:26), aurreko astean Lakuntza-Aralarren hirugarren sailkatetik zetorrena.

Bukaeran sari ematea izan zen Etxarri Aranazko kanpinean. Ohiko txapel eta trofeoz gain, antolakuntzak 1.200 euro banatu zituen sarietan, korrikalari bakoitzak jaso zuen produktu lotea kontuan hartu gabe. Beteranotan Juanjo Igarzabal (1:53:52) eta Ainara Urrutia (2:08:00) gailendu ziren, eta Asier Estarriagak (2:03:18), helmugan hamazazpi garren, eta Eneritz Karasatorrek (2:31:09) jaso zituzten lehen etxarriarren sariak.

Lasterketa abiatu bezain pronto, 60 neska-mutikok hartu zuten parte antolakuntzak kanpinaren inguruan antolatutako Triku Txikian. Guztia behar bezala antolatzeko 100 boluntario inguru aritu ziren lanean, Triku Trail taldeak "bihotzez" eskertu zuena, "euren laguntzarik gabe lasterketa ezingo baitzen antolatu". Babesleen laguntza ezinbestekoa ere eskertu zuten.

Sakandarrak

Gizonak

1. Walther Becerra	1:45:34
4. Eukeni Goikoetxea	1:50:14
8. Javi Gasanz	1:54:06
17. Asier Estarriaga	2:03:18
21. Ander Unzurrunzaga I.	2:04:47
23. Asier Palacios	2:06:06
25. Ander Unzurrunzaga G.	2:06:55
33. Ander Iraizoz	2:11:06
40. Javier Borrega	2:14:30
43. Joxeja Maiza	2:15:49
45. Aimar Araña	2:16:18
47. Juan Mariñelarena	2:16:36
49. Andoni Goikoetxea	2:17:44
54. Iñigo Orradre	2:19:43
61. Unai Razkin	2:21:37
62. Ibon Ubeda	2:21:48
64. Bernardo Garziandia	2:23:23
71. Ivan L. de Sabando	2:24:55
80. Jon Igoa	2:27:44
90. Ibai Arrese	2:32:52
98. Raul Moro	2:37:20
103. Pako Moreno	2:39:00
113. Javi Beloki	2:46:08
114. Axier Larrion	2:46:15
120. David Oroz	2:47:55
126. Mikel Arlegi	2:48:56
133. Aitor Salinas	2:52:01
135. Kaxi Estarriaga	2:53:43
141. Jon Goikoetxea	2:56:37
150. Alvaro Tapié	2:59:23
151. Raul Lage	2:59:28
157. Rafa Lakuntza	3:03:30
159. Miquel Navarro	3:04:44
160. Adrian Jaka	3:05:09
165. Iker Zeberio	3:06:58

Emakumeak

28. Ainara Urrutia	2:08:00
73. Marina Zabala	2:25:26
87. Eneritz Karasatorre	2:31:09
92. Ainhoa Beraza	2:33:44
110. Arantzazu Larrañaga	2:43:28
118. Marta Irañeta	2:47:04
123. Raquel Sanchez	2:48:35
128. Erkuden S. Martin	2:49:36
131. Joana Senar	2:51:59
156. Gurutze Ubeda	3:03:30

SAKANDARREN PARTE HARTZEA NABARMENA IZAN ZEN. 43K LORTU ZUTEN TRIKU TRAILA BUKATZEA

EGUN ON SAKANA



GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK
10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA
10:15 BATETI BESTIA
10:20 EGUNEKO ALBISTEAK
10:45 HIZKETAN
11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN
11:55 AGURRA

107.3 FM
beleixe
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS



Sei sakandar Lakuntzako proban

TXIRRINDULARITZA IV. Emakumeen Lakuntza Txirrindula Lasterketan Lacturale Ermitagañako Paula Ostiz, kadeteetan, eta Laia Puigdefabregas, juniorretan, gailendu ziren. Sei txirrindulari sakandarrek hartu zuten parte, kadeteetan, oso txukun: June Etxeberriak, Leire Urtaşunek, Bakarne Arregik, Siets Goikoetxeak, Ane Beltran de Herediak eta Ane Berastegik.



Erbiti eta Izagirre, prest

TXIRRINDULARITZA Kopenhageko aurkezpena egina, 109. Frantziako Tourra gaur hasiko da. Imanol Erbitik bere hamahirugarren Tourrari ekingo dio eta Gorka Izagirrek bere bederatzigarrena du. Bien egiteko nagusia Movistar Team taldeko liderra, Enric Mas, laguntzea eta babestea izanen da. Talde nafarrak adierazi duenez, "sentsazioak oso onak" dira.

Iratxoko botxa txapeldunak

BOTXA Hamahiru bikote lehiatu dira Iruztungo Iratxo Binakako Botxa Txapelketan, bi multzotan banatuta. Asteburuan finalak jokatu ziren. Julen eta Santos Iragi dira txapeldunak, final lehiatuan Mikel Olló eta Mikel Gelbentzu gainditu eta gero. Josune Astiz eta Alicia Navarro hirugarren sailkatu dira, eta Markel Moreno eta Aritz Carrasco laugarren.



"Nire marka pertsonala hobetzea da erronka"

JUNE KINTANA LARRAZA DISKO JAURTITZAILEA

DISKO JAURTIKETA Bakaikuarrak Espainiako Disko Jaurtiketa Txapelketa absolutua irabazi zuen Nerjan eta asteburuan Federazioen artekoa jokatu du Granollersen

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU Asteburuan Nerjan jokatu Espainiako Atletismo Txapelketetan Grupompleo Pamplona Atlético taldeko June Kintanak disko txapelketa irabazi zuen, diskoa 54,98 metrora jaurti eta gero. Bigarren Natalia Sainz sailkatu zen (52,66 m) eta hirugarren Paula Ferrandiz (50,61 m). **Zure azkeneko jaurtiketan egin zenuen denborarik onena, 54,98 m. Nola joan zen txapelketa?**

Mendebaldeko haizea sartu zela esan ziguten; haize hori lehorragoa da eta ez zegoen normalean egoten den hezetasuna eta beroa. Alde horretatik, oso ongi. Txapelketari dagokionez, hasieran urduri samar nengoen. Azken txapelketak onak izan dira, baina betiko urduritasun hori nuen, txapelketa nola aterako zen; proba aurrera joan zen heinean lasaitu nintzen eta azken jaurtiketa hoberena izan zen.

Azkenaldian zure progresioa oso ona izaten ari da. 2017 urtekoa da zure marka pertsonal onena (Bydgoszcz, Polonia, 56,30 m), baina ekainaren 4an Los Corrales de Buelna sarian marka apurtzeaz egon zinen, 56,20 m jaurti baitzenuen.

Hain zuzen ere, nire marka pertsonala hobetu nahian hor nabil lanean. Nerjan oso ongi ikusten nuen neure burua, marka apuratu nahi nuen eta tentsioarekin aritu nintzen. Ez nuen marka hobetzerik izan, baina urrea lortzea zen helburua eta alde horretatik oso pozik nago.

Zein da hurrengo txapelketa?

Asteburuan Granollersen Espainiako Federazioen Arteko Txapelketa jokatu da eta nik Nafarroarekin hartuko dut parte. Ea asteburuan txapelketa lasaigo hartzerik dudana eta marka polita egiten dudana.

Zure nahi hori ikusita aurtengo helburua zure marka gainditzea dela argi dago.

Bai, hori da nire lehenengo helburua, nahiko nukeena. Urte ona



June Kintana Larraza, Nerjan lortutako urrezko dominarekin. UTZITAKO

"OSPATU BEHARREKO GUZTIA BAKAIKUKO FESTETAN OSPATUKO DUT. FESTETARAKO OSO GOGOTSU NAGO"

izaten ari da, sentsazioak onak dira eta hori aprobetxatu beharra dago. Ea zorte pixka batekin marka hori gainditu ahal dudana. Sekulakoa litzateke.

Nazioarteko txapelketetan aritzeko aukera izango duzu?

Zaila izango da. Mundialak beharrezkoak dira, eta eskatzen duten gutxienez, 61 metrotik, urrutik geratu naizenez zaila da. Europako gutxienezko baxuagoa da, baina gutxienez hori ez baduzu lortzen federazioak ez zaitu hautatzen eta zaila da. Dena den, nik nire marka pertsonala hobetzen badut, horrekin oso pozik egongo nintzateke.

Espainiako hiru txapelketa jokatu dituzue segidan: klub artekoa, absolutua eta asteburuan federazioen artekoa. Hau eromena.

Bai, azken bi hilabete hauetan asteburu ditugu txapelketak eta astean zehar meetingak.

Oraingoz ongi sentitzen naiz, sentsazio onak ditut, eta ahal dudana arte saiatuko naiz sasoi luzatzen. Dena den, uste dut zutailaren 16an azken txapelketa egingo dudala, Leongo kontrol saio bat, eta hortik aurrera atsedena hartuko dudala.

Nolakoak dira zure oporrak? Kirola alde batera uzten duzue edo mantenua egiten duzue?

Gutxienezko mantenua egiten dut. Ni ez naiz bi aste ezer egin gabe egoten. Bakaikun banago mendira joateko aprobetxatzen dut, sasoi ez galtzeko. Pentsatzen dut abuztu erdialdera arte atsedena hartuko dudala eta hortik aurrera entrenamendu normalekin hasiko naizela. Oraindik ez dut entrenatzailearekin adostu, baina gutxi gorabehera horrela izango da, pixka bat deskonektatzeko.

Hirugarrenez Espainiako txapeldun absolutua zarela ospatu al duzu?

Oraindik ez. Jende guztiari esaten diot ospatu beharreko guztia Bakaikuko festetan ospatuko dudala. Pandemia garaitik ez ditugu festa normalak bizi izan eta aurten plazan dantzatzeko eta kuadrillarekin egoteko oso gogotsu nago.

Musikarekin aurrera

Hamar bat sakandarrek ikasten dute Pablo Sarasate Kontserbatorioan profesional mailako ikasketak; tartean Maddalen Oiarbide Unamuno bonbardino joleak eta Irati Ayerdi Perurena zeharkako txirula joleak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Zortzi urterekin hasi zen Maddalen Oiarbide Unamuno Altsasuko Musika eta Dantza eskolan. Urtebete geroago hasi zen Irati Ayerdi Perurena. Oiarbidek bonbardino jotzen du; eta Ayerdik, zeharkako txirula. Musika eskolako ikasketak amaitu ondoren, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean hasi ziren. Musika ikasketa profesionaleko hirugarren eta laugarren mailan daude, hurrenez hurren. Haiekin batera, hamar bat sakandar joaten dira kontserbatoriora.

Hasiera batean "lagunak musika eskolan zeudelako" hasi zen musika Ayerdi. "Entzuten nuen zer kontatzen zuten eta pixka bat horregatik. Arratsaldeetan zerbait egin nahi nuen, kirola egiten nuen, eta beste zerbait gehiago egin nahi nuen". Altsasuko Musika eta Dantza eskolan hasi zen. "Gero bertan jende gehiago ezagutu genuen, eta oso gustura geunden", gaineratu du Oiarbidek.

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako zero zikloan, lehenengo lau urteetan, Musika eta mugimendua ematen da. Ondoren, lehenengo zikloan, Hezkuntza musikarekin eta instrumentuarekin hasten dira. Gustukoena aukeratzeko "klasez klase ibili ginen", Oiarbidek azaldu duenez. Berak hasieran tuba aukeratu zuen, baina konturatu zen ez zuela gustuko. "Orduan, bonbardino aukeratu nuen, eta hura jotzea oso gustukoa nuen". Ayerdiaren kasuan, ez da oso ongi gogoratzen, baina zuzenean zeharkako txirula aukeratu zuela esan du. Ikasketak sei mailatan banatuta daude, bi ziklotan. Hirugarren ziklo bat Kontserbatoriora sartzeko probak prestatzeko ere badagoela azaldu dute Oiarbidek eta Ayerdik.



Maddalen Oiarbide Unamuno eta Irati Ayerdi Perurena musikari altsasuarrak.

"Gutxi gorabehera duela lau urte erabaki nuen kontserbatoriora joatea. Irakasleak esaten zidan proba egiteko prestatzeko

eta behintzat saiatzeko. Gustatzen ez bazitzaidan, beti zegoela denbora uzteko. Horregatik sartu nintzen", azaldu du Ayerdik. Azken

momentura arte zalantzan egon zela esan du, baina orain "oso gustura" dagoela esan du. Oiarbide duela hiru urte sartu zen, urtebete geroago, eta Jokin Borromeo musika irakasleak animatuta sartu zen. "Kontserbatorioan sartzeko aukera nuela esan zidan, sartzeko saiakerak izango nituela, eta animatzeko esan zidan". Pandemia egoeraren urtean egin zituen probak: "Zail samarrak izan ziren ez zegoelako klase presentzialik eta etxetik, online, egin behar genituelako". Azken uneko erabakia izan zen ere: "Azken momentuan animatu nintzen".

Kontserbatorioa

Profesional mailako kontserbatorioko gradua sei urte dira. Ayerdi gradua amaitzeko bi urte falta zaizkio, eta Oiarbideri hiru. Ondoren, goi mailako ikasketak aukera dago, lau urtekoa. Momentuz, ez dakite profesionala bukatutakoan goi mailarekin jarraituko duten. Ayerdi: "Ez dakit; nahiko gogorra da dena uztartzea: Institutua, kontserbatorioa...". Heldu den ikasturtean bigarren batxilergoa egingen dute eta unibertsitaterako sarbideko azterketa prestatu beharko dute ere. Musika jotzen jarraituko dutela argi dute.

Hasieran, "beldurrez" joan zirela aitortu dute bi musikari altsasuarrak. "Altsasuko bakarra nintzen, ez nuen inor ezagutzen...", azaldu du Oiarbidek. Baina urtea pasa ahala "espe-

rientzia bikaina" izaten ari dela esan du. "Jende asko ezagutu dut, jende jatorra, eta irakasleak ere onak dira". Asko ikasten ari dela aitortu du Oiarbidek. Ayerdi ere "oso-oso gustura" dago. "Hasieran, Maddalenek esan duen bezala, Altsasukoak izanik bakarrik sentitu nintzen, baina berehala egiten dituzu lagunak. Denak hor gaude arrazoi berbereragatik. Badugu zerbait amankomunean".

Ikasketak hiru ziklotan banatuta daude, sei ikasturteetan. Lehenengo eta bigarren mailan hezkuntza musikala ematen dute, hirugarren eta laugarren mailan harmonia eta bosgarren eta seigarren mailan analisisa. Horretaz gain, instrumentua, banda, piano osagarria eta beste zenbait irakasgai dituzte. "Zenbat eta maila altuagoa, orduan, eta irakasgai gehiago". Astean sei ordu ematen dituzte, "zuk banatzen dituzu nahi duzun bezala". Altsasutik joan behar direnez, ahalik eta egun gutxienean jartzen saiatzen dira. "Noski, egun horiek arratsalde guztia bertan emateko dira", azaldu du Ayerdik. Irakasgaiaren arabera, taldeko edo banakako klaseak dira.

"HASIERAN BELDURREKIN JOAN GINEN, BAINA ORAIN OSO GUSTURA GAUDE"



LANDA IRAUNKORTASUNA

Klima-erronkari denon artean aurre eginez

Akonpainamendu teknikoak tokiko entitateentzat "Alkatetzen paktuak klimarako eta enargiarako" lantzeko.

Aholkularitza energetikoa tokiko entitateentzat, enpresentzat, energia-komunitateentzat eta herritarrentzat.

Laguntza energia berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak tramitatzen.



Argitu zalantzak zeure lurraldean, eta ausartu ekimen iraukorrenekin

NAFARROAKO MENDIALDEA
Cederna Garalur
Telefonoa: 697 65 56 64
infoenergia@cederna.es
www.cederna.eu

ESTELLERRIA
TEDER Elkarte
www.teder.org

ERDIALDEA
Erdialdeko Tokiko Ekintzako Taldea
www.navarramedia.es

NAFARROAKO ERRIBERA
EDER Partzuergoa
www.consortioeder.es





Christian Barado, Yahir Romero, Houssam Lamri eta Abdel Boukhlik Sakana LHko ikasleak.

"Bertako zuhaitzak mantendu behar dira"

Ion Fontenla Sukia irakaslearen gidaritzapean, Christian Barado, Yahir Romero, Houssam Lamri eta Abdel Boukhlik Sakana LHko ikasleek, Aimar Izeza, Dani Argüelles, Fernando Perez, Andoni Calvo, Alex Ristea ikaskideekin, basoetan dagoen karbonoa neurtu dute



ZURE NEGOZIO, PRODUKTU EDO EKITALDIAREN BERRI EMAN NAHI DUZU

Kutxak, elkarrizketak, audioak,
irratsaioak, web banerrak, prentsarako
euskarriak... prestatuko dizkizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe





619 821 436
info@gkominikazioa.eus
www.gkominikazioa.eus
Foru plaza, 23-1, Altsasu



Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Altsasuko basoetan dagoen karbono kantitatearen inguruko ikerketa egin duzue. Zein irakasgaiaren barruan?

Merkataritza zerbitzuak oinarritzko lanbide heziketaren ikasketen barruan zientzia aplikatuak irakasgaiak.

2 Zergatik egin duzue? Nola sortu zen ideia?

Irakasleak esan digulako. Ez, ez, txantxa da. Altsasuko basoetan dagoen karbonoa neurtzeko. Zientzia aplikatueta zerbait praktikoagoa egin nahi genuen, eta orduan basoak neurtzera joateko ideia izan genuen. Klima aldaketaregatik ere larrituta gaude. Izan ere, karbonoak zerikusi handia dauka.

3 Nolako izan da prozesua?

Basoetara joan aurretik Sitna webgunera sartu ginen basoak neurtzeko. Gero bertara joan ginen. Aurretik ideia batekin joan ginen. Irakasgaiaren barruan natura eta matematika ditugu, eta ikasteko modu praktikoa da. Aurreko batean, ibaian ere izan ginen.

4 Horrela hobeto ikasten da?

Modu praktikoa gehiago ikasten da. Oso esperientzia ona izan da; oso gustura egon gara. Erakargarriagoa da, eta kirola ere egiten duzu. Irakasleak beste irakasleak kanpora ateratzea animatzen ditu. Posible da klaseen erdiak kanpoan egitea. Ikasle gehienei galdetzen badiezu klaseak kanpoan eman nahi dituzten, denek baietz esango dute. Asko ikasten da; motibagarriagoa da.

5 Zenbat denbora aritu zarete ikerketa egiten?

Lau baso neurtu genituen: pinudi bat, harizti amerikar bat, pagadi bat eta Dantzalekuko hariztia. Egun bakoitzean bat, eta bi aste inguru aritu gara lanean. Aurreko lana egin, basoetara joan, datuak neurtu, eta datu horiek analizatu eta kalkuluak egin. Erdia, gutxi gorabehera, naturan egin dugu eta beste erdia klasean.

6 Zergatik da garrantzitsua?

Lurraren berotzearen inguruan informazioa lortzeko, eta hura saihesten saiatzeko.

7 Zein kalkulu egin zenituzten?

Zuhaitzen batez besteko altuera, hektarea batean zuhaitz kantitatea eta zuhaitzen perimetroaren bataz bestekoa kalkulatu ditugu. Zuhaitzen altuera neurtzeko 1,8 metroko ikaskide bat zuhaitzaren ondoan jarri zen. Horrela kalkulatu genuen. Perimetroa kalkulatzeko metro bat erabili genuen, eta horrekin hektareak ere neurtu genituen. 50x50 metroko karratuak neurtu genituen, eta horrela dentsitatea kalkulatu genuen. Naturan Hezten ikerketa hartu dugu oinarri. Formula berezien bidez, adarren bolumena, sustraiena eta abarrena lortu dugu.

8 Zergatik da garrantzitsua?

Karbono basoetan utzi behar dugu, ezin da atmosferara igo; basoetan bildu behar da. Karbono hori atmosferara igotzen bada eta atmosferan karbono asko badago, lurraren berotzea gertatzen da.

9 Eta zer ondorio atera dituzte?

Altsasuko basoetan 404.600 tona karbono dugu, eta, egurra kenduko balitz, atmosferara CO2 moduan 1.480.000 tona joango liriteke. Egoera hobetu daiteke. Zenbat eta karbono gehiago basoetan, orduan eta gutxiago atmosferan. Bertako espezieak gailendu behar dira, eta horiek hedatu beharko liriteke. Garrantzitsua da karbono basoetan biltzea.

10 Zer gehiago ikasi duzue?

Asko ikasi dugu. Inguruan ditugun zuhaitz espezieak eta hostoen bidez haiek identifikatzen, basoen ekosistemak eta biodibertsitatea, nola eragiten duen klima aldaketan... Beste ikuspuntu batetik begiratzen dugu orain. Faunari buruz ere ikasi dugu. Geometria, bolumena eta azalerak. Zuhaitzen adina kalkulatzeko moztutako enbor baten bidez...

11 Oinarritzko LHa bukatu duzue. Orain, zer? Horrelako ikerketa gehiago egitea aurreikusten duzue?

Ikerketa egin aurretik ez genekien honi buruzko ezer, eta oso interresgarria izan da. Baina ez dugu uste gehiago egingo ditugunik. Bakoitzak bide bat hartuko du orain, soldadura, informatika... Sakana LHn dauden ikasketak. Dena dela, ikasitakoa oso baliagarria izango da.